

ZER DA ARRETA GOIZTIARRA?



Ekintza koordinatuen multzo bat da: diziplinarteko ekintza globalak dira, garapenean trastornoak dituzten edo trastornoak izateko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko haurren beharrezan erantzuteko xedea dutenak. Ekintzen bidez haur horien familiei eta inguruneari ere erantzun nahi zaie.

Gizarte-zerbitzuek zein osasun- edo hezkuntza-sistemek egiten dituzten ekintzak izango dira, beraz.

ARGIBIDE GEHIAGO

94 406 60 00

www.bizkaia.eus

arreta.goiztiarra@bizkaia.eus

 **Bizkaia**
Foru Aldundia
diputacion foral

ZER URRATS EMAN BEHAR DA ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZURA SARTZEKO?

1



Eskaera egiten da:

ZER AGIRI AURKEZTU BEHAR DIRA?

Erroldatze-ziurtagiria, NANaren eta familia-liburuaren fotokopiak.

NON AURKEZTU BEHAR DA? Bizkaiko

Foru Aldundiaren bulegoetan www.bizkaia.eus weba erabiliz; udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, eta Osakidetzaren edo Hezkuntzaren bidez.


2



Hitzordua jartzen da haurra ikusteko.



3



Foru Aldundiak haurren beharrezan ebaluazioa egiten du, osasuneko (Osakidetza) zein hezkuntza-arloko profesionalekin koordinatuta, Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea (AGBT) eratzen baitute.

4



Esku-hartzeko plana emango zaio familiari (beharrezkoa bada gizarte-zerbitzuek esku hartzea), bai eta eskura dituen haurren garapeneko zentrozen zerrenda ere.

- Haurren garapeneko zentroa familiak aukeratu dezake.
- Arreta goiztiarra doakoa da esku hartzeko planean jasota badago.
- Haur bakoitzak koordinatzaile bana izango du esleituta.


5



Haurren bilakaeraren jarraipena egingo da, haurri arreta eskaintzen dioten haurren garapeneko zentroko zein Osakidetza edo Hezkuntzako profesionalekin koordinaturik.

Aldian-aldian informaziorako eta trebatzeko saioak egingo dira familiekin (GURASO ESKOLA).

6



Zerbitzuaren amaiera:

Zerbitzua amaituko da haurra hobetu egin delako, behar duen arreta beste arlo batzuetatik (osasuna eta hezkuntza) jasotzen duelako, familiaren borondatea delako edo 6 urte bete dituelako.

Beste sistema batzuetarako trantsizioa egiten lagunduko zaie, haien arreta jasotzeko.

ZERGATIK 6 URTERA ARTE?

Garapenean arazoak daudenean tratamenduaren eraginkortasuna askoz handiagoa delako haurrak 6 urte bete bitartean.

